



GERNIKA-LUMO

**“HERRI SINESMENAK
ETA OHITURAK.
EMAKUMEA HERRI
TRADIZIOAN”**

Unitate didaktikoen bilduma (2)

Egilea:

- Gernikazarra Historia Taldea

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila.

Babesleak:

- Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskara Zuzendaritza)

Maketa eta inprimaketa:

- Gertu Inprimategia, Oñati

Urtea: 2009ko edizioa

AURKIBIDEA

1.- SARRERA GISA

2.- ELEZAHARRAK ETA MITOLOGIA

2.1.- Sorginen kontuak

2.2.- Lamiak

3.- GAUEKO AGERPENAK

4.- HEGAZTI MISTERIOTSUAK

4.1.- Gautxorien istorioak

4.2.- Kukuarenak

5.- SAN JUAN BUELTAKOAK – UDAKO SOLSTIZIOA

5.1.- San Juan bezperako suak

5.2.- San Juan bezperako suen inguruan abesten ziren kanta eta bertso batzuk

5.3.- San Juan egunean, bertan

6.- EMAKUMEA HERRI TRADIZIOAN

6.1.- Ezkontza

6.2.- Hileta-elizkizunak

ERANSKINA: Ariketetarako proposamena

1.- SARRERA GISA



“Zalantzarik gabe, gure baserritarren artean izan diren sorginkeri, aztikeri eta magia-sineskeriak eskuekin ia-ia ukitu baditugu (batez ere On Jose Miguel de Barandiaran eta Julio Caro Baroja Jaunen laguntzari esker), zergatik ez pentsa, arrazoi handiagoz, orain dela bost mende mundu hori egungoa baino biziagoa zela?. Gaur egun elektrizitatea, irratia, telebista, egunkaria, eskola,... eta halako beste batzuen eraginez, elementu magiko horiek guztiak gero eta baztertuago daude inolako gupidarik gabe, gutxi batzuk dirautelarik.”

“Bizcaya en la Edad Media Vol. III”, 110. or.

VV.AA.

HARANBURU EDITOR.

“Baserri eremua du eskenatoki nagusi, irudimenezko narrazioak. Hemen, izadiaren hartu-emanak zuzenagoak diren giro honetan, non animismoa nabaria den, gauzatu dira baldintzarik egokienak irudimenak, mitotoak eta legendak sor daitezzen eta beraiekin laketu. Mundu horretan, non etxe edo herririk hurbilena urrun zen, zaharrei entzundako istorioak kontatzen ziren. Saiatu gabe, aberasgarria zen ahozko mezua zabaltzen joan zen, sarritan esparru berean sartuz, eta nahastuz, historia eta mugarik gabeko elezaharren mundua.”

“El pensamiento mágico vasco. Ensayo etnológico”, 10 or.

GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan.

Edt. Baroja, 1989.

Jakina da sorgin, lamia, eta mitologiarekin zerikusia duten sinesmen hauek guztiak, galtzen eta ahazten hasi zirela Euskal Herrira industrializazioa eta modernitatea heldu zirenetik. Hiri-bizimodua baserriko bizimoduari eta giroari gailendu zitzaionean alegia.

Egoera sozial eta ekonomiko berriak mentalitate berria ekarri zuen berarekin, eta arrazoiak eta zientziak baztertu egin zituzten zaharkituta geratu ziren elezaharrak eta istorioak, artean, herri xehearentzat egunerokotasuneko gertaera konpreni ezinak, era ulergarrian formulatzeko baliogarririk egin zitzaizkionak.

Bestalde, gizarte berri horrek emakumearen papera ere moldatu eta aldatzea ekarri du, onerako kasu askotan, eta, beraz, interesgarria deritzogu lantxo honetan horren isla ematea, euskal gizartean topiko bihurtu zaigun matriarkatuari buruzko ideiak kokatzeko.

Gizarte iraultza honen bueltan badago baita bitxikeria bat Lumoko auzoko batek kontatutakoa. Auzotar honek zera esaten zuen eskopetaren gatiluaren keinua eginez: “Honek akabatu zituen danak!”. Hau da, eskopetak, makinak, eta teknologia-iraultzak orokorrean, landa giroa eta pentsamoldea baztertu egin zituen eta berari zegozkion sinesmenak, mundu magikoa eta animista ahantzi arazi.

2.- ELEZAHARRAK ETA MITOLOGIA

2.1.- Sorginen kontuak

“Bai, sorgin kontuak izan dira ere. Ez dakit nori zerbait agertu zitzaiola Lumoko Lamina errekaetan; han ez dakit zer ikusi zuela; ez dakit zer irten zitzaiola eta ez dakit zer esan ziola; ez dakit zein lekutan arima bat agertu dela eta gero etxeko bat ikusi zuela hildako bat agertu zitzaiolarik. Halako gauzak asko esaten ziren, ez zegoen fede handirik eta.”

----- O -----

Lumoko elizatearen ondoan bada “eperlanda” deitzen duten munitxo bat. Muga egiten du Ajangizko Kanpantxu eta Muxikako udalerriarekin. Oso lotua egon da beti leku hau sorgin kontuekin.

Eperlandan sorginek bilerak egiten omen zituzten gaueko 12etatik aurrera. Sorginek etxerako buelta hartu behar zuten egunsentia baino lehen eta San Pedro elizako kanpandorreak goizeko mezako kanpai-hotsak jo orduko. Horrela egin ezean, lurrera erori eta ezin ziren altxatu.

Behin baserritar bati gertatu ei zitzaion aurkitu zuela emakume bat lurrean mugitu ezinik. Emakumeak laguntza eskatu zion altxatzeko baina gizonak txarto erantzun zion sorgina zelakoan. Atoan, emakumeak sorginkeria bota zion eta handik gutxira gizon hura gangrenak jota hil zen.

Beste istorio batek, Lumoko beste auzoko bati Kosnoaga mendiaren magalean gertatukoaren berri ematen digu.



Beste istorio batek, Lumoko beste auzotar bati Kosnoaga mendiaren magalean gertatukoaren berri ematen digu. Gauez, bide batetik zihoala sorgin bat aurkitu zuen eta honek zera esan zion: “Dantzan egin behar dugu”. Baserritarrak eta sorginak jotan egin zuten egunsentiko kanpai-hotsak jo arte. Sorgina desagertu egin zen eta baserritarrari hatsak higatu egin zitzaizkion, jotan hainbeste kriskitin egitearren.

----- o -----

Amileko (Amillagako) auzoan San Martin basiliza dugu eta bertan ere badira sorgin kontuak. Elezaharrak dionez, antzinean Amile baserria gaur egun basiliza dagoen tokian zegoen. Baina egun batean sute batek goitik behera hondatu zuen baserria. Segituan agertu ziren bertan sorginak hondakin eta errautsen artean. Sorginak aldentzeko modu bakarra izan zen. Baserria izan zen orubean basiliza bat eraiki (San Martin basiliza). Baserria beherago berreraiki zuten, orain dagoen lekuan.



2.2.- *Lamiak*

Bada Lumoko elizatean Laminaga izeneko tokia. Bertatik igarotzen da izen bereko erreka bat eta ingurukoek betidanik sinetsi dute lamien bizitokia edo agertokia dela. Izaki hauek erdi gizaki erdi piztiak ziren. Gerritik gora emakumezkoak eta gerritik behera animalien itxura, batez ere arrain eta ahateena.

Jendea beldur zen bertatik igarotzean eta zur eta adi egon behar omen zen lamiak agertu baitzitezkeen. Lagunen batek halako lamiarekin topo eginez gero, honek esandakoa bete egin behar zuen. Gehienetan zera esaten zien lamiek: “Oinetakoak kenduta pasa behar duzu”. Hala-koetan, eta badaezpada, denek egiten zieten kasu lamiei inolako zorigaitzik gerta ez zekien.



Lamia.

----- 0 -----

Tramako erreka aldean ere badira lamien elezaharrak. Erreka honen ondoan “emakume antzekoak” ei ziren beraien adatsa orrazten. Beti zeuden gorputz erdia agerian eta beste erdia, gerritik beherakoa, uretan. Behin alboko ermitan errogatibak egin ziren eta harrezkero ez da berriro lamiarik ezagutu inguru hartan.

3.- GAUEKO AGERPENAK

Amile (Amillaga) auzoan, bazen ilargiaren eta satellite honek gauean sortzen duen itzalaren beldur zen emakume bat. Behin berandutu egin zitzaion etxera joateko eta korrika hasi zen ilundu orduko heltzeko. Ildargiaren argiak eragindako bere itzala ikusterakoan izutu egin zen eta korrika bizian hasi zen. Etxerako bidean beste emakume batekin egin zuen topo eta honek zera esan zion: “Nora zoaz?”. Izutuak erantzun zion: “Atzetik dator!. Atzetik dator!”. Bere itzala besterik ez zela ohartarazi arren, emakumeak izututa jarraitu zuen korrika gelditu gabe.

Beste batean, gizon bat gauez basoan jesarri eta sasi batzuen artean harrapatu rik gelditu zen, atzera begiratzeko beldurrez anima baten biktima zelakoan. Egunak argitu zuenean libratu egin zen eta alde egin zuen handik.

----- 0 -----

Behin, Lumoko emakume bat labaderoa zen iturburu batera joan zen. Etxeraturakoan, gautu egin zitzaion eta ilargiaren argiak eraginda, beldur handia eman zion zerbait arraroa ikusi ei zuen. Izututa, mugitu ezinik, han bertan geratu zen gau osoan eta oihuka: “*Zer dau hor?; zer dau hor?; zuritasunak (animak) datoz!; zuritasunak datoz!*.”

----- 0 -----

Animen kontuetako beste sinesmen bat zera zen, etxeari hainbat buelta eman ez (ez dira zehazten zenbat), hildakoen animei erregutu egiten zitzaizela eta hauek berehala agertzen zirela.



4.- HEGAZTI MISTERIOTSUAK:

4.1.- Gautxorien istorioak

“Horri bai diodala nik beldurra. Gautxoriaren alauruei. Gehienetan, hona etxe ondora etorri gauaz eta alaurutan hasten ziren. Geurean askok esaten zuten.: “Baten bat hil egin behar da. Ikusiko duzu. Herrian edo,... Urdia edo Sendia”. Hiru edo joan-etorri egiten zituen eta itzelezko zarata egiten zuen. Askok esaten zioten hegazti horri, “gautxoria”. Txori samar handiak ziren. Neuri ere, behin hiru aldiz kantatu zidan. Hiru alauru ikaragarri egin zizkidan eta desagertu egin zen. Biharamunean izan nuen notizia. Nere semea gorpu zen. Gautxoriak kantatu zidan ordu berean hil zen nire semea.”

4.2.- Kukuarenak

Euskal herrian oso hedatuta dagoz kukuari lotutako istorioak. Arruntanak, eta Gernika-Lumoaldean ere, tradizio gehien izan zutenak diruarekin zerikusia zuten .

Elezahar batzuek diotenez, kukuaren kantua entzuten den lehenengoan (udaberri aldera) poltsikoan ditugun sosak biderkatu egiten dira. Une horretan aldean dirua izanez gero, urte hori emankorra izango zeneko seinalea zen. Eta, ostera, kukuaren kantak poltsikoa hutsik igerriz gero, ekonomia aldetik urte hori txarra izan zitekeen.

Esaten zen baita, martxoaren 25eko Andra Mari egunerako kukua agertu edo bere kantua entzun ezean, beharrezkoa zela “korredorie” (mezularia) bidaltzea haren bila kanta zezan.

5.- SAN JUAN BUELTAKOAK – UDAKO SOLSTIZIOA

5.1.- San Juan bezperako suak

Udako solstizioko jaiak, ospakizunak eta tradizioak mugarri izan dira betidanik urteroko herri-egutegian. Eliza Katolikoak, sustraia paganoa zuten egun honetako erritoak ezkutatu edo ezabatu nahian, ukitu erlijiosoa eman zion ekainaren 24ari, San Juan bataiatzaileari kontsokratuz urteko egunik luzeena.

Gehien hedatuta dagoen erritoetako bat, San Juan bezperan egiten diren suak dira. Ez gure inguruan bakarrik, Europa osoan ezagutzen baitira halakoak. Su hauen inguruan jai giroa izaten zen, jauziak eginez txingarren gainetik eta egun horretarako aproposak ziren kantak abestuz.

Abesti hauen gai nagusiak bi ziren: alde batetik, santuari eginiko errekuak uzta ona lortzeko eta soroetan kalteak sortzen zituzten piztiak aldentzekoak ditugu; eta bestetik, apaizei egiten zitzaizkien kritika irrigarriak. Ez dugu ahaztu behar, orduko kleroak ez zuela ontzat ematen eliza girotik kanpo antolatutako eta beraien kontrolpean ez zegoen inolako erritorik. Abadeentzat, gauaren babespean egiten zen edozein ospakizun, deabruarekin zerikusia izan zitzaketen errito maltzur eta zitalekin erlazionatzen zuten. Beraz, elizak ezarritako irakaskuntza zuzenetik urrun geratzen ziren herri ohitura hauek.

Elizgizon eta herritarren arteko elkar ezinikusi honek bazuen oinarri logikoa ere. Nekazariei oso neketsua egiten zitzaizkien apaizek sarritan eskatzen zituzten limosnak, buldak, eta antzerakoak. Gainera halako diru edo genero ordainak ia derrigorrezkoak izaten ziren eta ordaindu ezean apaizaren haserrea nabaria izaten zen.

San Juan bezpera oso une aproposa izaten zen apaizak barregarri uzteko eta denetariko burla eta bromak egiteko beraien lepo. Kleroko jendea gainera ez zen agertzen halako ospakizunetan, beraiek ez egote soilarekin kondenatuz “deabrukeria” haiek guztiak.

5.2.- San Juan bezperako suen inguruan abesten ziren kanta eta bertso batzuk

“San Juan bagilian
denbora ederrian
hainbeste usain goxo,
San Juan, San Juan,
Donie, Donie
San Juan dator
artoa eta garije
bedeinkatze”.

“San Juan bagilian
Denbora ederrian
Hainbeste usain goxo
Donie Donie
bezpera gabien,
abadiak hasarratu ziren,
ez eben besterik eiten
eta bakarrik musturrek eusiten”.

“Gure soloan sugerik ez,
zure soloan sugoiek.
Gure soloan kalterik ez,
zuen soloan kaltie.
Gure soloan sagurik ez,
Zuen soloan saguek”.

“San Juan dabil soloetan
solo guztiek bedeinkatzen
lapurrak erre sorginak erre
artoa eta garije kaixan gorde”


5.3.- San Juan egunean, bertan

San Juan egun bereko tradizioarik hedatuena, lore, zuhaitz adar eta denetariko fruituen bedeinkazioan datza. Etxeko etartean jartzen ziren (eta oraindik jartzen diren) lizar adarrak ziren ohikoenak. Adar hau egun berean moztu behar zen, baina beti eguzkia irten orduko.

Baseri batzuetan adar hauek eta beraiekin jartzen ziren loreak, urte osoan zirauten etxeko atarian edo etartean eskegita lehortu arte, eta hurrengo urteko San Juan bezperan erre egiten ziren suan, apoak, sugandilak, sugeak, bestelako piztiak, sorginak, lapurrak eta gaiztotzat hartzen ziren guztiak aldenitu egiten zituztela sinestuz.

Asmo berarekin, sorginak, sugeak eta abarrekoak izutu, alegia, baseritarrek “bonbille” izeneko kristalezko botila handi batekin ibiltzen ziren soro-soroz zarata egiten eta, aldi berean, bezperan suaren inguruan abestutakoak kantatzen zituzten.

Urarekin lotutako errito bat ere bazen. San Juan egunean, lizarrarekin egiten zen modu berean, egunsentia orduko iturrian eta iturburuetan hartutako urak ezaugarri sendagarriak ei zituen. Ondo gordeta edukitzen zuten etxean eta bakarrik erabiltzen zen derrigorrezkoa zenean eta zauri larrien kasuan.



6.- EMAKUMEA HERRI TRADIZIOAN

Betidanik izan da oso entzuna euskal gizartean emakumeak bete duen garrantzizko funtzioa. Oraintsu arte, bere esku egoten zen familia-bizigiroaren gidaritza. Batez ere, landa guneeetan izan du indarra emakumearen gidaritza horrek eta beti etxe kontuetan eta baserriaren atetik barrura. Agian, tradizio kultural hau izan da bide eman diona hain eztabaidatua izan den euskal matriarkatuari.

Dena dela, hemen ez dugu horretaz eztabaidatuko, baina bai egingo diogu ukitu txiki bat landa giroan, tradizioz, emakumeak izan dituen betebeharrak eta ardura batzuei.



6.1.- Ezkontza

XIX. mendearen bukaeran eta XX. Mendearen hasieran, ohizkoak ziren oraindik ezkontza hitzartuak. Ezkontzarako beti edukitzen zuten kontuan “baserriari” onura gehien zekarkion eta errentagarrien izan zitezkeen “tratua”. Etxe hori senargaiaren familiakoa izaten zen gehienetan, eta, ondorioz, emaztegaiak jarri behar zuten ezkontzarako derrigorrezkoa zen “dotea”. Dote honek indartu, handitu eta aberastu egiten zuten ezkontideen etxea (baserria), senarra-rena alegia.



Zentzu honetan, emakumeak familian betetzen zuten funtzioa inportantea izanik, errealitatean emaztea baliabide ekonomikoetara zegoenez eta legedi aldetik, beti zegoen senarraren eta, nolabait, honen familiaren menpe. Doteaz gain (dirua, lur-sailak, ondasunak, ...), emaztegaiak “arreo” zeritzon ekarpena ere egin behar zuten ezkontza egunean. Arreo hau, zenbait altzari eta etxe-tresneri-ekin osatzen zuten. Adibidez, logelarako beharrezko guztia: ohea, armairua, garbiketarako palangana eta pitxerrak, mudak, eta bestelako arropak. Batzuetan, nekazal lanabesak eta sukalderako tresneria ere gehitzen zitzaizkion arreoari.



Ezkontza-hitzarmen hauek ezkontza-kapitulazioetan zehazten ziren zehatz-mehatz eta bertan idatzitakoa bete ezean, ezkontza bertan behera gera zitezkeen.


6.2.- Hileta-elizkizunak

Etxeko emakumearen protagonismoa oso nabaria zen familiako hileta-elizkizunetan ere (bestela galdetu etxeko zaharrei, aitite-amameei). Etxeko emakumea izaten zen, nolabait, etxeko “serora” edo erlijio kontuetako arduraduna. Berak zuen hileta-elizkizunetarako hildakoen gorpua atondu eta prestatzeko ardura. Berak antolatzen zituen baita etxean egiten ziren errito eta otoitz guztiak ere (gaubela, errosarioak, eta abar)

Besteak beste, etxeko emakumearena zen elizan etxeari zegokion “sepultura” izeneko ara txikitxoaren antolamendua ere. Sepultura hau, elizan egonda, etxeko beste edozein gela edo zatiaren bestekoa zen. Etxearekin bat eginda zegoen eta, beraz, etxeko emakumeari zegokion bere zain-tza eta erantzukizuna.

Familiaren sepultura elizako txoko batean eratzen zen. Amantala beltz bat jartzen zen eta bere gainean zapi zuritxoak zeukan otarretxo bat. Alboetan zutargi bana, hauek lagundu egiten baitzien etxeko zenduei bidea egiten hil ondorengo mundu ilunean. Etxekoak beraiek sepulturaren ardura bete ezinean izanez gero, beti egoten ziren igandeko meza nagusirako honen kargu hartzen zuten bi edo hiru andere, parrokiako “serorak” deitzen zirenak.

Ez dugu ahaztu behar, ezkontza dela-eta arestian aipaturiko arreoan emaztegaiak askotan eraman behar izaten zuela familia berriaren sepultura antolatzeko beharrezkoa izango zen tresneria guztia.



Erabilitako iturriak (irudiak eta argazkiak):

-”Euskal mitologia” Jose Miguel de Barandiaran.

-”Nosotros los vascos” LUR entziklopedia.

-”Euskalerriko atlas etnografikoa” Etniker.

ERANSKINA: Ariketetarako proposamena

- **DEFINITU** hitz eta kontzeptu hauek: mitologia, animismoa, matriarkatua, dotea, gaubeila, sepultura, serora.
- **IKERTU:**
 - Galdetu zure familiako nagusiei (aitona, amona) edo zure auzoko adineko bati elezaharrik edo herri-istoriorik ezagutzen duen. Entzun, egin transkripzioa eta idatzi ipuin eran.
 - Nolakoak ziren gure aitona-amonen sasoiaren gazteen arteko harremanak? Nola egiten ziren lagun, senar-emaztegai? Nola tratatzen zuten elkar? Nola aritzen ziren erromerietan?
 - Nolakoak zen sasoi hartako lan-bereizketa landa giroan? Zertaz arduratzen ziren emakumeak eta zertaz gizonak?
 - Bilatu euskal mitologian diren beste izaki batzuk. Egin zerrenda bat eta ondoren lortu informazio gehiago Interneten bidez, ikerketa lan txo bat egiteko euskal mitologiari buruz.
- **EMPATIA** ariketa:
 - Imajinatu duela 80 urteko emakume baserritarra zarela. Nolakoak da zure bizitza? Jar zaitez bere egoeran eta aztertu zeintzuk liratekeen zure bizimoduaren alde onak edo abantailak, eta zeintzuk alde txarrak edo eragozpenak.
 - Ondoren, egin hausnarketa eta idatzi iritzi-testu bat, emakumeak baserri giroan izan duen garrantziari buruz. Baloratu bere lana eta bere betebeharrak etxe, familia eta gizarte mailan.
- **ASMATU:** Bosteko ikasle taldeak eratuz, bildu duzuen edo ezagutzen duzuen elezahar edo mitologia istorioren bat aintzat hartu eta idatzi antzezlan txiki bat (10-15 minutukoa), gero antzezpena egiteko.

- **BISITALDIA:**

-Bisitatu Amileko San Martin ermita eta aztertu bere ingurua: kokagunea (auzoa, iturburu-gunea, Errigoitirako bidean,...), toponimia (Amillaga, Laminaga,...), ermita bera (ezaugarri arkitektonikoak, ingurua, ondoko zuhaitzak, ondoko harriak,...), ondoko baserriak (geurixe, Amille, Madariaga, Ordorika, Obar, Abaliz, Arribalza,...)

EGILEA



ARGITARATZAILEA ETA BABESLEA

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



LAGUNTZAILEAK

